



PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

«ADOBE LIZENTZIEN HORNIDURA»

1.- Kontratuaren xedea.

Adobe lizentzien hornidura eta mantentze-lanak kontratatzea.

2.- Proiektuaren irismena.

Agiri honen xedea zera da, ezartzea zer preskripzio tekniko bete behar dituzten Adobe Acrobat Pro eta Adobe Creative Cloud produktuak erabiltzeko lizentzien hornidurak eta mantentze-lanek 2026., 2027. eta 2028. urteetan.

Adobe Acrobat Pro lizentziak (50) eta Adobe Creative Cloud lizentziak (2) 3 urterako berritu nahi dira, eta eskaera handiagoa denez, baita lizentzia gehiago kontratatu ere; zehazki, Adobe Acrobat Pro lizentziak 60 izango dira, eta Adobe Creative Cloud lizentziak, berriz, 2:

Produktua	Lizentzia kopurua
Acrobat Pro for teams Multi European Languages Subscription	60
Creative Cloud for teams All Apps Multi European Languages Subscription	2

Oraingo lizentzien mantentze-zerbitzua 2026ko urtarrilaren 14an bukatuko da.
Egungo kontratua: 9FF5125439B7593FACCA (VIP Select)

Zerbitzuak barne hartuko ditu aurretik zehaztutako lizentzia guztien mantentze-lanak kontratuaren hiru urteko indarraldian.

3.- Proiektuaren beste alderdi tekniko batzuk.

BBUPek hornitutako ekipamenduaren eta lizentzien jabe gisa agertu behar du, eta ekipamendu horren fabrikatzailearen datu-baseetan jasota geratu beharko du kondizio horrek.

Bilbo, 2025/04/13

Kontratuaren kudeatzailea
David Alonso Villafáfila

Informatikako zuzendariordea
Santiago Guillen